

INDESA 2010 zentroak bere plantillaren heren bat baino gehiagorako enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea aurkeztuko dio eta soldatak% 100eraino osatuko ditu

Aldundiaren Laudioko San Roke egoitzako erabiltzaile bat hil da, Covid-19 birusean positibo eman ondoren

Alavabuseko garraio erregularreko lineen zerbitzuak %30 murriztuko dira bihartik aurrera. Ordutegi berriak gaur arratsaldean egongo dira eskuragarri www.araba.eus/alavabus web atarian

Gasteiz, 2020ko martxoaren 25a. Indesa 2010 enplegu zentro bereziak, Arabako Foru Aldundiaren partaidetza nagusia duen sozietateak, enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea aurkeztu du, ezinbesteko arrazoiengatik, plantilla osoaren heren bat baino gehiagorako. INDESAk bere plantillaren soldata % 100eraino osatuko du espedienteak irauten duen bitartean, zentroko enpresa Batzordeari jakinarazi dionaren arabera.

Espediente horren arrazoia da koronabirusak eragindako osasun larrialdia dela eta hainbat erakunde, enpresa hornitzaile eta bezerok hartutako neurrien ondorioz jarduera murriztu egin dela. Hain zuzen ere, industria eta lorezaintza arloetako jarduerak erabat ixtea erabaki du, baita Gasteizko aireportuko kafetegia ere, eta Arabako hiriburuko gizarte etxeetako garbiketa arloa zati batean ixtea.

Indesa 2010 kapital publikoa duen sozietatea da, gehiena Arabako Foru Aldundiaren esku dago, eta lurraldeko zenbait tokiko erakunderen eta Eusko Jaurlaritzaren esku ere. Zentro horren betekizuna da kalitatezko lan aukerak eta gizarte, ekonomia eta ingurumen aldetik jasangarriak direnak sortzea Arabako desgaituentzat, haiek laneratzea eta gizarteratzea lortzeko bide gisa. Zentroak 800 langiletik gora ditu, zeinen artean hamarretik bederatzik era bateko edo besteko desgaitasuna baitu.

Aldundiaren egoitzak

Bestalde, Laudioko San Roke egoitzako erabiltzaile bat hil da ospitalean; egoitza hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zentroen sarearen barruan dago. 84 urte zituen eta aurretiazko patologia, eta positiboa eman zuen koronabirusean.

Hona hemen Aldundiko adinekoen eta desgaituen egoitzetako datuak, martxoaren 25ean eguneratuak: 7 erabiltzaile ospitaleratu dituzte koronabirusagatik, eta 13k positibo eman dute eta euren egoitzetan artatzen ari dira.

Foru garraioa

Arabako errepide bidezko hiriarteko garraioa foru lineek beren zerbitzu eskaintza ohiko zerbitzuaren %40tik %30era murriztuko dute bihartik aurrera (martxoak 26), eskariaren beherakadara egokitzeke. Bidaiarien kopurua %90 baino gehiago jaitsi da alarma egoera deklaratu zenetik.

Ordutegi berriak gaur arratsaldean egongo dira eskuragarri www.araba.eus/alavabus web atarian.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak martxoaren 16an %40ko zerbitzu eskaintza ezarri zuen foru garraiorako, EAEko murriztena, Alarma egoera deklaratzeko duen Errege Dekretua eta Euskadiko Garraio Agintaritzaren koordinazio mahaian hartutako neurriak aplikatuz.

Orain, eta Garraio Ministerioak emandako eta atzo argitaratutako agindu berria aplikatuz, zerbitzuaren beste murrizketa bat aplikatuko da enpresa emakidadunekin lankidetzan, eskaintza arruntaren % 30 ingurukoa izan arte.

Neurri honen helburua da foru lineen eskaintza azken asteotan izandako eskariaren beherakada handira egokitzea, une oro bateragarri eginez lan arrazoiengatik eta/edo funtsezko zerbitzuengatik bidaiatu behar duten pertsonen mugikortasuna eta bidaiarien artean osasun arrazoiengatik gorde behar den ezinbesteko distantzia fisikoa.

Helburu horrekin, eta orain arte bezala, ibilgailuen okupazioa plazen heren batera mugatuta geratuko da.